	CIFP FADURA LHII	2023-05-9
	<b>HH3</b>	
	<b>ZEHAZTAPENAK/PROIEKTU KURRIKULARRA</b>	Orr. 1/8

<b>IZENDAPENA</b>	<b>GOI-MAILA HAUR HEZKUNTZA</b>
<b>MAILA</b>	1. eta 2.a ( 2000 orduak)
<b>TITULAZIOA</b>	<b>HAUR HEZKUNTZAKO GOI-MAILAKO TEKNIKARIA</b>
Lanbide- arloa	Gizarte- eta kultura-zerbitzuak
Europako erreferentea:	INSN-5b (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua)

Titulu honen **konpetentzia orokorra** honetan datza: Haur Hezkuntzako lehen zikloan 0-3 urte(esparru formalean) eta etapa osoan 0-6 urte (esparru ez-formalean), haurrentzako arretarako heziketa-proiektuak eta -programak diseinatu, gauzatu eta ebaluatzea, Haur Hezkuntzako gradua edo horren pareko titulua izango duen irakasle batek prestatutako proposamen pedagogikoaren arabera; eta ingurune seguruak sortzea, bestelako profesionalekin eta familiekin lankidetzan.


Titulu honetan biltzen diren lanbide kualifikazioen katalogo nazionalen kualifikazioen eta konpetentzia-atalen zerrenda:

<b>Kualifikazioak</b>	<b>Konpetentzia atalak</b>
Haur Hezkuntza. SSC322_3	<p>UC1027_3: Hezkuntza-komunitatearekin harreman arinak ezartzea eta harreman horiei eustea, eta familiekin, hezitzaile-taldearekin eta bestelako profesionalekin koordinatzea.</p> <p>UC1028_3: Ikastetxerako eta haur-taldeentzako hezkuntzako esku-hartze prozesuak programatu, antolatu eta ebaluatzea.</p> <p>UC1029_3: Autonomian eta osasunean ohiturak hartzeko eta trebatzeko programak, arrisku-egoeretan esku hartzeko beste programa batzuk garatzea.</p> <p>UC1030_3: Haurren jardueraren eta garapenaren ardatz gisa, jolas-egoerak sustatu eta abian jartzea.</p> <p>UC1031_3: Hazkunde pertsonalerako eta profesionalerako bitarteko gisa, haurraren adierazpen- eta komunikazio-baliabideak garatzea.</p> <p>UC1032_3: Objektuak ukituta, eta haurren arteko eta helduekiko harremanen bidez ingurunea miatzea errazten duten ekintzak garatzea.</p> <p>UC1033_3: Ikaskuntzak zehaztu, sekuentziatu eta ebaluatzea, eta zero eta sei urte bitarteko haurraren garapenaren testuinguruan interpretatzea.</p>

## 1. SARTZEKO BALDINTZAK

Goi-mailako ziklo edo modulueta sartzeko, honako baldintza hauetako bat bete behar da:

- Gutxienez titulu hauetako bat izatea:
  - Batxilergoko titulua
  - Unibertsitateko titulua
  - Lanbide Heziketako Teknikari edo Goi Teknikari edo Teknikari Espezialista titulua
  - Batxilergo Bateratu Balioanizduneko (BBB) titulua

	CIFP FADURA LHII	2023-05-9
	<b>HH3</b>	
	<b>ZEHAZTAPENAK/PROIEKTU KURRIKULARRA</b>	Orr. 2/8

2. Gainditu izana:

- Batxilergo Esperimentaleko edozein modalitateko bigarren maila
- Goi-Mailako Heziketa-Zikloetara sartzeko proba
- Hogeita bost urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba
- UZI edo PREU

## 2. IGAROTZEKO BALDINTZAK

- 1- Bigarren mailara igarotzen da gainditu gabeko modulu bat edo birekin, moduluen iraupena **300 ordu** baino gutxiagokoa bada.
- 2- Ebaluatzeke azken bilera egin ostean ikasleari gainditu gabeko moduluren bat geratzen bazaio, behin bakarrik errepikatu ahal izango ditu presentziazko erregimenean lanbide-modulu bererako programatu diren jarduerak.
- 3- Ikaslea gehienez lau aldiz aurkeztu ahal izango da lanbide-modulu beraren azken ebaluaziora eta kalifikaziora; alabaina Lantokiko Bertako Prestaketa modulu profesionalaren kasuan bi aldiz bakarrik aurkeztu ahal izango da (Ebaluazioen taula begiratu).

## 3. TITULAZIOA


- 1- Prestakuntza-ziklo bat gainditzeko, zikloak dituen modulu guztiak gainditu behar izango dira Haur hezkuntzako goi-mailako teknikariaren titulua lortzeko
- 2- Baldin eta Haur hezkuntzako goi-mailako teknikari titulua 2008ko apirilaren 16a eta gero lortu bada, edo curriculum osoaren %50a baino gehiago euskaraz egin bada, salbuespena emango da euskara hizkuntzaren ziurtagiria emateko, hizkuntzei loturiko Europako Esparruko **B2** mailari dagokiona (EHEAko apirilaren 16ko 74.zb.)
- 3- Prestakuntza-ziklo bakoitzeko irakaspen guztiak gainditzen ez dituzten ikasleek soilik jasoko dute gainditutako lanbide moduluen ikasketa-ziurtagiria; ziurtagiri honek, ikasketa-ondorioz gainera, eskuratu dituen gaitasun profesionalak pilotzeko egiaztatze partzialaren ondorioak ere izango ditu Kualifikazioen eta Lanbide-heziketaren Sistema Nazionalari dagokionez.

## 4. EBALUAZIOA

Ikaslearen ikaskuntza etengabe ebaluatuko da; lanbide-moduluka egingo da eta, horretarako, irakasleek prestakuntza-ziklo bakoitzean dauden lanbide-modulu guztiak hartuko dituzte aintzat.

Ikasturtearen hasieran modulu-etako irakasleek ondokoak jakinarazi beharko dizkie ikasleei: helburuak, modulu bakoitza gainditzeko ikasi beharreko edukiak, eta emaitzak ebaluatzeke erabiliko diren irizpideak:

Ikastetxean bezala, zikloan Haur Hezkuntzako mintegiko moduluen irakaskuntzarako ETHAZI metodologiak erabiliko dira; beraz, irakaskuntza modelo horien ebaluaketarako ezaugarriak eta metodologiak erabiliko dira.

	CIFP FADURA LHII	2023-05-9
	<b>HH3</b>	
	<b>ZEHAZTAPENAK/PROIEKTU KURRIKULARRA</b>	Orr. 3/8

Bai programazioak bai ebaluazio irizpideak (Homogeneizazio akta) Ikasketa Burutzan daude, guraso edo tutoreen zein ikasleen eskura.

### Ebaluazioen laukia

#### LEHENENGO MAILA

Data	Saioa	Oharrak
1. Hiruhilabetea	<b>1. Ebaluazioa</b>	
2. Hiruhilabetea	<b>2. Ebaluazioa</b>	
3. Hiruhilabetea	<b>3. Ebaluazioa</b>	
	<b>Lehenengo Azken Ebaluazioa</b> Egindako moduluen balorazioa eta kalifikazioa	
(Deialdi bien artean 7 egun naturaleko tartea)	<b>Bigarren Azken Ebaluazioa</b> -Azken lehenengo ebaluazioan suspenditutako moduluak -Bigarren mailara igarotzeko balorazioa	<b>Bigarren mailara igarotzea:</b> Gainditu gabeko modulu bat edo birekin, moduluen iraupena 300 ordu baino gutxiagokoa bada.

\*ETHAZI metodologian ez daude ebaluaketarik, erronkaz erronka ebaluatzen baita.


### ENPRESAKO PRESTAKUNTZA – DUAL OROKORRA

1go mailako ikasturtearen azken ebaluazioan ikasleek ordu batzuk egingo dituzte enpresetan prestakuntzarako.

### ENPRESAN PRESTAKUNTZA JASOTZEKO DAUDEN PLAZAK ESLEITZEKO IRIZPIDEAK.

Talde bateko ikasle guztiek parte hartzeko enpresa nahikorik ez badago, edo taldeko ikasle guztiek prestakuntza enpresan edo lantokian ez egiteko arrazoi justifikagarriren bat badago, taldeko ikasleei plazak irizpide hauen arabera esleituko zaizkie:

- Enpresan hasi aurretik 12 orduko Laneko Arriskuen Prebentzioko oinarrizko prestakuntza gehigarria gaindituta izatea.
- Esleitzeko sasoiari 3 modulu edo gehiagotan 2 erronka gainditu gabe dituzten ikasleei ez zaie plazarik esleituko.
- Intzidentzia larriren bat izan eta jarreraren bilakaerari dagokionez irakasleen kalifikazioa positiboa ez duten ikasleei ez zaie plazarik esleituko.
- Enpresan joan arte hutsegiteen % 20 metatuta zituzten ikasleei ez zaie plazarik esleituko.
- Aurreko ikasturtean praktikak egin dituzten ikasle errepikatzaileen kasuan, kasu bakoitza banaka aztertuko du irakasle-taldeak eta ikasketa-buruak.

	CIFP FADURA LHII	2023-05-9
	<b>HH3</b> <b>ZEHAZTAPENAK/PROIEKTU KURRIKULARRA</b>	Orr. 4/8

## **ENPRESAKO PRESTAKUNTZA DUALEKO MODULUEN EBALUAZIOAK ETA KALIFIKAZIOAK.**

Enpresako prestakuntza-aldi horrek ikasleen prestakuntza indartzeko eta enpresan ordu gehiago egin direla egiaztatzeko balioko du. Beraz, proiektuan inplikaturako moduluak hartuko dira kontuan, aurreikusitako ebaluazio-sistemaren arabera.

Enpresako/lantokiko prestakuntza curriculumaren parte da, eta, beraz, esleitutako enpresara ez joatea zentroan emateari utziko dioten modulueta ez joatetzat hartuko da, eta bertaratze-hutsegitei buruzko araudia aplikatuko da.

### **BIGARREN MAILA**


Data	Saioa	Oharrak
1. Hiruhilabetea	<b>1. Ebaluazioa</b>	
2. Hiruhilabetea	<b>2. Ebaluazioa</b>  <b>Lehenengo Azken Ebaluazioa</b>  -BIGARREN MAILAN egindako moduluen balorazioa eta kalifikazioa -Lehen mailako gainditu gabeko moduluak -LPra edo Proiektua egiteko gai diren ikasleak erabakiko da	Proiektua eta LPra sartzeko, lehenengo eta bigarren mailan egindako modulu guztiak gaindituta eduki behar dira  Irakasle taldeak kontuan hartuko du tituluari dagozkion lan-gaitasunen lorpena, baita lanerako heldutasuna eta heldutasun pertsonala LPra sartzeko.
3. Hiruhilabetea	<b>Bigarren Azken Ebaluazioa</b>  -Honakoak baloratu eta kalifikatuko dira: Gainditu gabeko lehen eta bigarren mailako moduluak -LP. -Proiektua	Proiektu moduluan honakoak hartuko dira kontuan: lanpostuan izandako jardun maila, lanbide osoaren ulermen maila eta egindako proiektuaren integrazioa.

\*ETHAZI metodologian ez daude ebaluaketarik, erronkaz erronka ebaluatzen baita.

**Lantokiko Prestakuntza** moduluan (LP) sartzeko, zikloko modulu guztiak eduki behar dira gaindituta; normalean bigarren mailako hirugarren hiruhilabetean egiten da. Bigarren azken ebaluazioan (ekainean) LPa edo Proiektua gainditzen ez dituzten ikasleek, hurrengo ikasturtearen hasieran egin ahal izango dute LP modulua eta Proiektua. Ebaluazioa bigarren mailako lehenengo azken ebaluazioan egingo da.

**Lantokiko Prestakuntza** modulu profesionala ebaluatzeko, modulua ematen duen tutoreak edo irakasleak lehentasuna emango dio ikaslea lantokian egon den bitartean izan duen instruktoreak egindako balorazioari.

Lanbide-moduluen kalifikazioak (Proiektua barne) batetik hamarrera bitartekoa izango da, eta ez du hamartarrik izango. Bost puntuko edo hortik gorako kalifikazioak positiboak

	CIFP FADURA LHII	2023-05-9
	<b>HH3</b> <b>ZEHAZTAPENAK/PROIEKTU KURRIKULARRA</b>	Orr. 5/8

dira. *Lantokiko Prestakuntza* modulu profesionalari gai edo ez-gai kalifikazioa emango zaio.

EA (Ez Aurkeztua) notarekin kalifikatuko dira dagozkion deialdietara aurkezten ez diren ikasleak: lehen edota bigarren mailako azken bigarren ebaluazioetara eta lehen mailako gaitu gabeen moduluen deialdietara (2. mailako azken lehenengo ebaluazioa).

Prestakuntza-ziklo osoak bere kalifikazioa izango du, baldin eta horren lanbide-modulu guztiak gaituta badira: kalifikazio hori, lanbide-moduluetan lortutako kalifikazioen batez besteko nota izango da eta bi hamartar izango ditu.

### **LP ENPRESEN ESLEIPENERAKO BALDINTZAK:**

Ikasleak LPra bidaltzeko eta enpresa horiek banatzeko ikasle artean, ondoko irizpideak izango dira kontutan agertutako ordenan:

- Egokitasuna lan-postura: zikloan zehar adierazitako jarrera eta aprobetxamendua.
- Ikasketa-espeditate.

Praktiketarako enpresak aukeratzeko irizpide batzuk hartuko dira kontuan:

- Partzuergoko haurreskolak edo pedagogia alternatiboko zentroak.
- Eskola publikoko 2-3 urteko gelak.

### **5. BALIOAZKOTZEAK ETA SALBUESPENAK**

Baliozkotze eta salbuespenak idatziz aurkeztu behar dira Idazkaritzan. Informazio gehiago:

<https://www.fadura.eus/eu/baliokidetzak/>


### **6. MATRIKULA EZEZTATZEA ETA DEIALDIARI UKO EGITEA**

#### **Ikasleak eskatutako ezeztatzea**

Ikasleak matrikula ezeztatzea eskatu ahal du, eta horrek, matrikulatuta dagoen lanbide-modulu guztietan baja hartzea ekarriko du. Eskabidea idatziz igorriko zaio ikastetxeko zuzendariari abenduaren 31 baino lehen.

Ondoko baldintzaren bat gertatzen denean:

- Ikaslearen gaixotasun luzea.
- Ikasketarako dedikazio normala eragotziko duen lanpostu batean hastera.
- Ikasketarako dedikazio normala eragotziko duten obligazio pertsonalak edo familiarak izatea.
- Eskaera zuzentzen den ikastetxeko zuzendariak aintzat hartutako beste ezohiko egoera batzuk.

	CIFP FADURA LHII	2023-05-9
	<b>HH3</b>	
	<b>ZEHAZTAPENAK/PROIEKTU KURRIKULARRA</b>	Orr. 6/8

### Matrikula ezeztatzea baldintza objektibo ezagatik

Hezkuntza Ordezkaritzak, baliogabetu egin ahal izango matrikula bat, baldin eta ikasleak betetzen ez baditu ikasten ari den ikasketei loturiko lanbideak eskatzen dituen baldintza psikofisikoak betetzen ez baditu (hezkuntza, hizkuntza politika eta kultura sailaren 2013ko martxoak 3ko ebazpenean).

### Deialdiari uko egitea

Lanbide-modulu bakoitzerako aurreikusitako deialdiak ez agortzearen, ikasleek bi aldiz uko egin ahal izango diote heziketa zikloetako lanbide modulu bakoitzaren ebaluazioari eta kalifikazioari. Eskaera, dokumentu bidezko egiaztapenarekin batera, uko egiten den deialdia baino hilabete lehenago aurkeztuko da. Ikasle eskatzailea ukoa egiten duen moduluetan bitan matrikulatuta egon bada, ez du eskoletara bertaratzeko eskubiderik izango.

## 7. LAN PERFILA

Lanbide-irudi honek hezkuntza formalaren eta ez-formalaren sektorean egiten du lan, haurrentzako arretarako gizarte-zerbitzuen sektorean.


Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Haur Hezkuntzako lehen zikloko haur-hezitzailea. Betiere, maisu edo maistra batek gainbegiratuta jardungo du, Estatuko, autonomia-erkidegoko nahiz tokiko erakundeen mendeko instituzioetako edota titulartasun pribatuko ikastetxeetako hezitzaile gisa.
- Hezkuntza-laguntzako espezialista: Hezkuntza Premia Bereziko ikasleekin (2-21 urte)
- Arrisku sozialean dauden adingabeekin (0-6 urte) edo familiei laguntzen (beste profesional batzuen jarraibideak beteta) lan egiteko berariazko erakundeetako eta/edo programetako hezitzailea.
- 0 eta 6 urte bitarteko adingabeekin aisia eta denbora libreko programa edo jardueretako hezitzailea: ludotekak, kultura-etxeak, liburutegiak, ikastetxeak, aisia-guneak, landetxe eskolak, etab.

## 8. PRESTAKUNTZA IBILBIDEA

1. kurtsoa: **1HH3** (33 aste kurtsoan)

Lanbide moduluak	Asteko orduak	Ordu elesipena
0012. Haurren autonomia pertsonala eta osasunak	6	198
0014. Adierazpena eta komunikazioa	6	198
0015. Garapen kognitiboa eta motorra.	6	198
0016. Garapen sozioafektiboa	5	165
0017. Gizarte-trebetasunak.	4	132
0021. Laneko prestakuntza eta orientabidea	3	99
guztira	30	990

	CIFP FADURA LHII	2023-05-9
	<b>HH3</b>	
	<b>ZEHAZTAPENAK/PROIEKTU KURRIKULARRA</b>	Orr. 7/8

2. kurtsoa: **2HH3** (20 aste institutuan / 13 aste FCT)

Lanbide moduluak	Asteko orduak	Ordu elesipena
0011. Haur-hezkuntzaren didaktika	10	200
0013. Haur-jolasa eta bere metodologia	7	140
0018. Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea	5	100
0020. Lehen laguntzak	3	60
E200. Ingeles teknikoak	2	40
0022. Enpresa eta ekimen sortzailea	3	60
0019. Haurrei arreta eskaintzeko proiektua	(13 aste)	50
0023. Lantokiko prestakuntza		360
guztira	30	1010

**9. OHARRAK**

**1-Lanbide moduluen arteko baliozkotzeak**

HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOGSE, 1/1990) HAUR HEZKUNTZA	HEZIKETA ZIKLOKO LANBIDE-MODULUAK (LOE, 2/2006) HAUR HEZKUNTZA
Haur-hezkuntzaren didaktika	0011. Haur-hezkuntzaren didaktika
Norberaren autonomia eta osasuna	0012. Haurraren autonomia pertsonala eta osasuna
Jolasaren metodologia	0013. Haur-jolasa eta bere metodologia
Adierazpena eta komunikazioa	0014. Adierazpena eta komunikazioa
Garapen kognitiboa eta motorra	0015. Garapen kognitiboa eta motorra
Garapen sozioafektiboa familiekin lankidetzan arituz	0016. Garapen sozioafektiboa
Talde-dinamika eta -animazioa	0017. Gizarte-trebetasunak
Lantokiko prestakuntza	0023. Lantokiko prestakuntza

	CIFP FADURA LHII	2023-05-9
	<b>HH3</b>	
	<b>ZEHAZTAPENAK/PROIEKTU KURRIKULARRA</b>	Orr. 8/8

**2. lanbide moduluen eta kompetentzia atalen arteko trazagarritasuna baliozkotu, salbuestu edo egiaztatzeko**

LANBIDE MODULU GAINDITUAK	EGIAZTA DAITEKEEN KOMPETENTZIA ATALAK
0017.Gizarte-trebetasunak	UC1027_3: Hezkuntza-komunitatearekin harreman arinak ezartzea eta harreman horiei eustea, eta familiekin, hezitzaile-taldearekin eta bestelako profesionalekin koordinatzea.
0011.Haur-hezkuntzaren didaktika	UC1028_3: Ikastetxerako eta haur-taldeentzako hezkuntzako esku-hartze prozesuak programatu, antolatu eta ebaluatzea.
0012.Haurraren autonomia pertsonala eta osasuna 0018.Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea	UC1029_3: Autonomian eta osasunean ohiturak hartzeko eta trebatzeko programak, arriskuegoeretan esku hartzeko beste programa batzuk garatzea.
0013.Haur-jolasa eta bere metodologia	UC1030_3: Haurren jardueraren eta garapenaren ardatz gisa, jolas-egoerak sustatu eta abian jartzea.
0014.Adierazpena eta komunikazioa	UC1031_3: Hazkunde pertsonalerako eta profesionalerako bitarteko gisa, haurraren adierazpen- eta komunikazio-baliabideak garatzea.
0016.Garapen sozioafektiboa 0018.Familiekin lankidetzan aritzea eta arrisku sozialean dauden adingabeei arreta eskaintzea	UC1032_3: Objektuak ukituta, eta haurren arteko eta helduekiko harremanen bidez ingurunea miaztea errazten duten ekintzak garatzea.
0015.Garapen kognitiboa eta motorra	UC1033_3: Ikaskuntzak zehaztu, sekuentziatu eta ebaluatzea, eta zero eta sei urte bitarteko haurraren garapenaren testuinguruan interpretatzea.